


# Bilbao

## **BILBOKO ALKATEA DEN JAUN MARI ABURTOK BILBAO ART DISTRICT-EN ARTEEN ASTEA INAUGURATU, ETA SEKTOREKOEKIN BILDUKO DA**

- **Artearen sektoreak aurtengo Art District ekimenaren hasierarekin bat egin du, eta ehun bat pertsona hurbildu dira Arriaga Antzokian egin den inauguraziora, artistak, galeristak, profesionalak eta unibertsitateko, museoetako eta arte ekoizpeneko zentroetako ordezkariak, besteak beste**
- **Alkateak azaldu du proiektua eraiki dela sektoreari lotuta dauden pertsonen lana garatzen jarraitu ahal izateko beharrezkoak diren plataformak sortzeko. Aldi berean, herritarrei ere askotariko jarduerak eskainiko zaizkie artearen zirkuitura hurbiltzeko**
- **Arteen Astearekin Bilboko Udalaren helburua da herritarrei artearen sektoreak duen garrantzia helaraztea eta ikusaraztea, bai kultura eta ekoizpen artistikoaren sustatzaile gisa, bai lan kualifikatuaren zein jarduera ekonomikoaren iturri gisa**
- **Gaurtik aurrera, hirian zehar dauden hamaika artelan ikusi ahal izango ditugu, bai eta programatutako plan guztietan parte hartu ere: hitzaldiak, erakusketak, *performance*-ak, parte hartzeko ekintzak, bisita gidatuak eta topaketak artistekin**
- **Plan ugari daude, baina honako hauek nabarmendu behar dira: doako bisita gidatuak itsasontzian itsasadarretik, arte-galerietan artistekin egotea, familientzako sormenezko ibilbide pedagogiko bat, Internazionala himnoaren berrikuspen performatiboa klake dantzarekin eta itsasadarraren soinu-erregistro bat uraren konposizio fisiko eta kimikoarekin**

*(Bilbon, 2018ko maiatzaren 18an).*- Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, sektore artistikoko eragileekin batera, Bilbao Art District-en Arteen Astearen seigarren edizioa abiarazi du. Ekitaldiari esker, artearekin zerikusia duten proposamen eta plan ugari izango ditugu gaurtik aurrera eta hilaren 27ra arte, igandea. Ekitaldirako, ehun bat pertsona bildu dira Arriaga Antzokian, artistak, galeristak, sektoreko profesionalak eta EHUko Arte Ederren Fakultateari, Bilbao Arte Fundazioari, museoei eta arte-ekoizpeneko zentroeiei lotutako pertsonak, besteak beste.

Inauguratzeko ekitaldiaren bitartez, Bilboko Udalaren helburua da herritarrei artearen sektoreak duen garrantzia helaraztea eta ikusaraztea, bai kultura eta ekoizpen artistikoaren sustatzaile gisa, bai lan kualifikatuaren zein jarduera ekonomikoaren iturri gisa. Ekitaldian, alkateak nabarmendu du Bilbao Art District-en lana oso-oso garrantzitsua dela sare profesionala eratzeko eta hiria artea sortzeko eta merkaturatzeko espazio egokia bihurtzeko.



# Bilbao

Hauexek izan dira alkatearen hitzak: *“Bilbon artea espazio ireki bat izatea nahi dugu, herritar guztiak bilduko dituena”*. Hauxe nabarmendu du: *“Bilbao Art District proiektua urte osoan garatzen da, baina arreta berezia jartzen dugu maiatzean, Arteen Astea antolatzen dugun unean. Ekimenak programa berezi bat du, sektoreari lotuta dauden pertsonen lana garatzen jarraitu ahal izateko beharrezkoak diren plataformak sortzeko, eta, aldi berean, herritarrei ere askotariko jarduerak eskaintzeko artearen zirkuitura hurbil daitezen”*.


Horrez gain, Bilboko alkateak udalak Arteen Astearen alde egindako apustua nabarmendu du, aurten **HAMAR EGUNEZ LUZATUKO BAITA**. Egun horietan, artea izango da Bilboko agendako protagonista, **EHUN JARDUERA INGURU** antolatuko baitira. Programazioa lankidetzan publiko-pribatuari esker gauzatu ahal izan da. Hain zuzen ere, hauexek dira parte hartu duten entitateak: Guggenheim Bilbao Museoa, Arte Ederren Museoa, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa, EHUko Arte Ederren Fakultatea, Bilbao Arte Fundazioa, ekoizpen artistikoko zentroak eta galeriak.

## **HIRI OSOAN ZEHAR EGONGO DIREN ARTELANAK**

Erakunde-ekitaldi honekin hasi da Arteen Astea, eta gaurtik aurrera **ESPazio PUBLIKOETAN** jarri diren artelanak ikusi ahal izango dira, eta **AURTEN HORIEK IZANGO DIRA IKUSGARRI NAGUSIAK**. Guztira, **11 ARTELAN** daude hiri osoan zehar, ekitaldiaren ekintza-eremua hiri osotik zabaltze aldera.

Aurkezpena hasi baino lehen, **obra adierazgarrienetako bat inauguratu du** Bilboko alkateak, esanahia gehien duenetako bat. **‘Secuencia de Impacto’** du izena eta **Santiago Morilla** madrildarrarena da. Arriaga Antzokiaren alboan dago, eta Bilbao Art District-en metafora bat da. Kupula geodesiko bat du, eta **BARRUAN LANDAREAK DITU**. Gainera, jasotzen dituzten estimulua biltzeko sentsoreak dituzte landareek, hala nola pertsonen hurbiltasuna, tenperatura edo hezetasuna. Biltzen den informazioa soinu eta irudi bihurtzen da, eta instalazioaren kanpoaldean entzun eta ikus daiteke. Kupulak Bilbao Art District-ek eta Bilboko Udalak artearen sektoreari lekua emateko eta zabaltzeko egiten duten lana irudikatzen du. Landareek sektorea ordezkatzeko dute, eta sentsoreen bitartez biltzen diren estimuluek sektoreko eragileen elkarreragiketa eta herritar guztiarekin dutena erakusten ditu. Azkenean, elkarri eragite horren emaitza ikusle guztiei helaraziko zaie, Morillaren obran pantailen bitartez egin den bezala.

Beste **BERRIETAKO** bat da itsasadarra izango dela hiri-espazioetako instalazio asko bisitatzeko ardatz nagusia, hala nola formatu handiko **ARGAZKIAK**, XX. mendeko Europako hiru iraultza ikuskatzen dituztenak, Martzana kaian; oholtzen gainean jarriko diren **HORMA-IRUDIAK**, Bilboko gizartearen irudiak, Areatzako eta Salboko zubietan nahiz Zingira, Erripa eta Printzipe kaleetan kokatuak; edo **DEUSTUKO ZUBIAREN ETXOLAN** instalazioa. Espazio



# Bilbao

publikoetan dauden lanetara hurbiltzea aukera ona izan daiteke artearekin harremanetan jartzeko planez betetako asteburuan sartzeko.

## **ITSASADARRETIK IBILBIDEAK ITSASONTZIAN, BISITA GIDATUAK ETA TAILERRAK**

Ostiralean, halaber, **BISITA GIDATUAK** hasiko dira, Laura Ruizek gomendatutako ibilbidearekin, 17:30etik aurrera La Taller galeriatik. Larunbatean, maiatzak 19, berriz ere egingo da jarduera, eta, horrez gain, polo artistiko gisa ikusten den San Frantzisko auzotik beste ibilbide bat egingo da. Txema Agiriano izango dugu gidari 18:00etatik aurrera, SC Gallery delakoan.

Igandean, hilak 20, beste bi bisita gidatu antolatuko dira, oso bereziak biak. Arteen Astean **ITSASADARRETIK DOAKO IBILBIDEAK** antolatu diren lehenengo aldia da, eta lehiaketako artelanak ikuspuntu oso original eta ezberdin batetik ikusteko aukera izango dugu. Ontziratzea Pio Barojako pantalanetik egingo da 13:30ean eta 18:30ean, eta jarduera ordutegi berean errepikatuko da ostiralean, maiatzaren 25ean. Beste plana, igandekoa (hilak 20), familientzako pentsatu da, eta Martzana kaitik abiatuko den ibilbide artistiko bat izango da. 11:30ean hasiko da.


**TAILERRAK** ere gaur hasiko dira, ostiralean. 'Hijas del bodegón' izango da lehenengoa, Hemen estudioan programatutako jarduera praktikoa bat. Bertan, material eta formen laborategi bat proposatuko dute 18:00etatik aurrera.

- Bisita gidatuetan eta tailerretan parte hartzeko, [bilbaoartdistrict.com](http://bilbaoartdistrict.com) webgunean edo 94 42 53 30 telefono-zenbakian eman beharko da izena. Tokia bete arte eman ahal izango da izena.

## **PERFORMANCE ETA PARTE HARTZEKO EKINTZAK ASTEBURUAN**

**PERFORMANCE ETA PARTE HARTZEKO EKINTZEN** barruan, Miriam Isasi artistaren 'TAP (L'Internationale)' proposamena nabarmendu behar da asteburu honetan. Internazionala himnoa berriz aztertu, eta klake dantzariak interpretatuko dute. Oinetakoetan Gerra Zibileko metrailarekin egindako zolak izango dituzte zapatetan. Bihar, larunbatean, ikusgai egongo da Azkuna Zentroan, 20:30ean. Larunbatean, hilaren 26an, berriz, Areatzako teilatupeetan egongo dira 13:00etatik aurrera.

Gaur, ostirala, 'Ecos BLV: generando espacios de encuentro' ekintzan parte hartzeko aukera izango dugu, Bilbo Zaharraren "oihartzunak" hiriko beste auzo batzuetara eramango dituen ibilbide performatiboa. Mariaren Bihotza plazatik abiatuko da 18:00etan, eta Indautxu, Abando eta Alde Zaharretik igaroko da.



## **ITSASADARRAREN SOINUA**

Beste alde baterik, larunbaterako, hilak 19, eta iganderako, hilak 20, “**RÍA, RÍA, RÍA**” **IZENKO ESPERIENTZIA BERRITZAILEA** programatu da. Ibaizabaleko uraren konposizio fisikoa eta kimikoa aztertuko da bertan eta, ondoren, soinu-erregistroa gauzatuko da analisisian lortutako balioen bitartez. Erregistroa gailu mugikor batean jarritako bozgorailu batzuen bidez igorriko da, eta ibaiertz osoan ibiliko da Areatzeko zubitik Euskalduna zubira, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

## **ARTEAREN SEKTOREA / SEKTORE ARTISTIKOKO PROFESIONALAK ETA HERRITARRAK**

Art District-ek **ARTISTAK ETA IKUSLEAK BATZEA** lortu du. Ostiralean, maiatzaren 18an, egingo den jardunaldian, Amaia Gracia artistak Espacio Marzana galerian duen erakusketa azalduko du 19:30ean. Ordu horretan bertan, Juanma Reyes, Martín Carral, Joo Eun Bae eta Khalid El Bekay artistak berriketan izango dira MH Art Gallery delakoan.

Larunbatean, 19:30ean, Nagore Amenabarroren obrara hurbiltzeko unea izango da. Juan Manuel Lumbreras galerian dago ikusgai, eta bisitarien artean erakusketako lanak zozkatuko dira. Arte galerietako jarduera gehiago egongo dira La Taller galerian, Raisa Álava artistak antolatutako ‘Print Party’ delakoan. Jardueran parte hartzeko, [bilbaoartdistrict.com](http://bilbaoartdistrict.com) webgunean edo 94 42 53 30 telefonoan eman behar da izena. Igandean, bestalde, SC Gallery delakoan izango dugu hitzordua, non Anna Taratiel artistarekin hitz egin ahal izango dugun, 13:00etan.

- **BILBAO ART DISTRICT-EN ARTEEN ASTEARI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA ETA PROGRAMAZIO OSOA:**  
[WWW.BILBAOARTDISTRICT.COM](http://WWW.BILBAOARTDISTRICT.COM)